

Gonbidatua

Zerbaiten parte izatearen sentsazio zoragarri hori

Euskadin badugu harribitxi bat: Euskal gizartean oinarritzko aktiboa den hirugarren sektore soziala. Hirugarren sektoreko elkarte hauek bi alderdi uztartzen dituzte; beharrei erantzuten diete eta instituzioekin elkarlanean aritzen dira batetik, eta gaitasun kritikoa dute bestetik, oker dagoena salatzen eta proposamen alternatiboak egiteko. Ekarpenez izugarria egiten diete pertsonei, familiei, taldeei, eta euskal gizarteari bere osotasunean.

Pertsonen oinarritutako zerbitzu batzuk izan nahi baditugu, ezinbestekoa da osasun sistemaren eta sistema sozialaren arteko elkarlana; eta arlo soziosanitariorik egongo bada, bertan hirugarren sektore sozialak behar du, nahitaez.

Ardura publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen dugun elkarteok, interbentzio sozialaren esparruan ardura publikoko zerbitzu eta sistema modura kontsolidatu diren arreta sare eta arreta zerbitzu asko sustatu ditugu.

Espazio soziosanitarioaren eraikuntza eta garapenean parte hartzen ari gara, koordinazio organoetan eta dinamiketan parte hartuz, zerbitzuak sustatuz eta eskainiz, eta ekarpen handi bat egiten ari gara. Gure kasu konkretuan, ekarpen hori osasun mentalarekin arazoak dituzten pertsonen eta beren familien arreta integralari egiten diogu, laguntza-sare bat eskainiz: eguneko zentroak, enplegu zerbitzuak, bizitza independenterako laguntza zerbitzuak, laguntza psikologikoa, aisialdi zerbitzuak, senideentzako zerbitzuak, formakuntza, sentsibilizazioa, etab.



Gainera, administrazio publikoekin batera lan egiten dugu esparru ezberdinetan, *Fedeafes* eta *Agifes* elkarteak esaterako “ICIC2019 San Sebastian-Basque Country” Arreta Integratuaren inguruko nazioarteko 19.konferentziaren antolakuntza-batzordean parte hartzen ari dira.

Konferentzia apirilaren 1etik 3ra ospatuko da, “Aldaketaren aldeko kultura partekatu bat: pertsonengan oinarritutako zerbitzu integratuen ereduak ebaluatzen eta inplementatzen” izenburupean. Gizarte sektorea garen aldetik, ekarpen asko ditugu arlo soziosanitarioari egiteko, bai ikuspuntu profesionaletik (gure esku-hartze ereduak gertukoak da, bizi kalitatearen eredu oinarritua dago eta pertsonak arretaren erdigunean hartzen ditu), baita erabiltzaileen ikuspuntutik ere. Amaitzeko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren leloa den esaldi bat baino ez: **Zerbaiten parte izatearen sentsazio zoragarri hori**

¹ (6/2016 LEGEA, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Zioen azalpena)

M^a Jose Cano Mesias
FEDEFESeko zuzendaria
(Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioa)

Albisteak



Zahartzea eta Autismoaren Espektroaren Trastornoa. Bizi-prozesu ikustezina

[Gehiago irakurri...](#)



Eraikinen jabegoa eta egoitzetan bizi diren adineko pertsonen hilkortasun tasaren inguruko ikerketa.


[Gehiago irakurri...](#)

Community health services explained

[Community services](#) [Local service design](#) [Integrated care](#)

Osasun zerbitzu komunitarioak

[Gehiago irakurri...](#)



Aldaketa familiarra Spainian. Irudi eta eredu berriak

[Gehiago irakurri...](#)



Bizitoki eredu berri baten bila: zer egoitzatan bizi nahi dugu?


[Gehiago irakurri...](#)

Albisteak



Adinekoen Iruditeri Soziala

[Gehiago irakurri...](#)



New models of home care "Etxez etzeko zaintza eredu berriak"

[Gehiago irakurri ...](#)



Zaintzaileak. Minbiziaren aurpegi ezezaguna.

[Gehiago irakurri...](#)



Osasunaren ardura elkarbanatuz: Aldaketa kultural bat.

[Gehiago irakurri...](#)



Adinarekin lagunkoia den auzo bat eraikitzen

[Gehiago irakurri...](#)

Albisteak



Populazioaren Osasunaren ikuspuntua. Etorkizun osasuntsuago baten bila

Gehiago irakurri ...



Nork zaintzen du nor? Adineko pertsonak zaintzeko zaintzaile informalen eskuragarritasuna Esainian. "Hurbilketa demografikoa" inkestaren datuetan oinarrituta

Gehiago irakurri ...

Editore Taldea

Aitor Lopez de Aberasturi, Maialen Fidalgo eta Catarina Paz

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu coordinacionsosa@bioef.org helbidera idatzi ezker. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/>